

## 16 - URUBURU

## 1. HELBURUAK:

- 1 Erguin auzoarekin uztartzeko honen jarraipena izango den etxebizitza gunea antolatzea, dagozkion etxebizitza babestuak txertatuz.
- 2 Bai eraikinen kokapena eta bai antolamendua bera, malda eta eguzkiari egokitzu aurreikustea.
- 3 Uribarriko eliza aurrea eta Udalara doan errepidea lotzen dituen bidexka oinezkoentzat berreskuratzea.
- 4 Erguin Herri-Eskola handitzeko gordespena egitea.
- 5 Gernika oinezkoen zumardiaren luzapenari Gesalibarreraino jarraipena ematea, dagokion zatian.

## 2. EGITURAZKO ANTOLAMENDUA:

LURZORUAREN SAILKAPENA:	Lurzoru hiritargarria
ESPARRUAREN AZALERA:	41.839 m <sup>2</sup>
ERABILERA OROKORRA:	Etxebizitza
SISTEMA OROKOR PUBLIKOAK:	Esparruaren barruan geratzen den: - Gernika oinezkoen zumardiaren Gesalibar arteko luzapen zatia
ERAIKIGARRITASUN FISIKOA:	35.000 m <sup>2</sup> (e)
HIRIGINTZA-ERAIKIGARRITASUNA:	30.000 m <sup>2</sup> (e)
ERAIKIGARRITASUN HAZTATUA:	44.091,74 m <sup>2</sup> (h) (36 artikulua)
BABESTU BEHARREKO ONDAREA:	Ez dago
ETXEBIZITZA KOPURUA:	Berriak: 300
EGITARAU:	1. laurtekoa

## 3. ANTOLAMENDU XEHATUA:

ANTOLAMENDU ARAUBIDEA: Igorria (A5)  
 JARDUKETAREN EREMUA: Esparrua bera  
 JARDUKETA ERA: Hitzarmen-sistema (K4)  
 ZUZKIDURAK (TOKIKO SISTEMAK ETA URBANIZAZIO IRIZPIDEAK):  
 Legeak eskatzen dituenaz gain:

- Erguin eskola handitzeko behar den lurzorua lagapena egin beharko da.
- Gernika oinezkoen zumardiaren dagokion zatia eraiki beharko da.

## ERABILERA ARAUBIDEA:

- E. ohikoa: Babestutako etxebizitza (72 artikulua)
- E. nagusi baimenduak: Trinkotasun handiko etxebizitza (71 artikulua)  
Irakaskuntza hornikuntza (90 artikulua)

- Gainontzean, idatziko den plan partzialaren arabera

## ERAIKIGARRITASUN XEHATUA:

	Gutxienez	Gehienez
- Babes ofizialeko etxebizitza	16.500 m <sup>2</sup> (e)	16.875 m <sup>2</sup> (e)
- Etxebizitza tasatua	6.000 m <sup>2</sup> (e)	6.375 m <sup>2</sup> (e)
- Trinkotasun handiko etxebizitza	7.125 m <sup>2</sup> (e)	7.500 m <sup>2</sup> (e)
- Merkataritza	0 m <sup>2</sup> (e)	900 m <sup>2</sup> (e)
- Irakaskuntza hornikuntza	1.200 m <sup>2</sup> (e)	5.000 m <sup>2</sup> (e)

ERAIKUNTZAREN ARAUBIDEA: Idatziko den plan partzialaren arabera  
 ESKUHARTZE GUNEA: BAI

## BESTE BATZUK:

1. Bertan dauden txabola guztiak antolamenduz kanpo geratzen dira.
2. Hirigintza-eraikigarritasun osotik 30.000 m<sup>2</sup> (e) da etxebizitza-erabilerari dagokion gehienezko eraikigarritasuna. Horietatik trinkotasun handiko etxebizitzetara gehienez 7.500 m<sup>2</sup> (e) bideratu daitezke. Gainontzekoa babestutako etxebizitzetara dagokie, eta horietatik, gutxienez, 16.500 m<sup>2</sup> (e) izango dira BOE. Betiere ere, bai eremu bereko babes publikoko etxebizitzaren legeko estandarra, bai eremu defizitarioen legeko estandarra berdintzeko beharrezkoa dena, biak, bete beharko dira.
3. Erguin eskola handitzeko behar den lurzorua lagapenak tokiko sistema izaera izango du.
4. Gernika oinezkoen zumardia eraikitzeak tokiko sistema izaera izango du.
5. Eraikigarritasun haztatua kalkulatzeko 36 artikuluan jasotako laukia loteslea da.

## 4. KONTUAN HARTZEKOAK:

1. IHOBek eginiko "poluzioa izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inventarioa"-ren arabera esparruan kutsatutako lurzorua egon daiteke (186 artikulua).
2. Esparru honen zuzkidura-bizitokien legeko estandarra (450 m<sup>2</sup>) Agerre esparruan gauzatu beharko da.